



TOLOSAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

2023-2027

ESKU97a2ecbd-f50c-4881-890f-37a7e0e0e0e0

ELEBITAN





TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Aurkibidea

SARRERA

VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027). TOLOSAKO UDALA

KUDEAKETA ETA ERABILERA MARKOA EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO

1-Ardatza: KUDEAKETA

2. Ardatza: ERABILERA

2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA

2.2 LAN-HIZKUNTZA

2023-2024-2025eko KUDEAKETA PLANA

ERANSKINAK

I Eranskina: Adierazleen Aginte Panela.

II Eranskina. Diagnostiko kuantitatiboaren emaitzak eta puntuazioa

III. Eranskina Lanpostu zerrenda



SARRERA

Txosten honetan jaso dugu Tolosako Udalaren Euskara Normalizatzeko Plana. Dokumentuaren helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen udalean eta hobetzeko zer pauso eman behar diren. Planean, UEMAren hizkuntza irizpideak jasotzen dira, haiek izango baitira erreferentzia ibilbide guztian, baita UEMAren irizpideak betetzeari begira udalak bere jardunerako onartutako hizkuntza irizpide xeheak ere.

2023-2027 artean izango du balioa planak, eta urtez urte kudeaketa plan bat egingo zaio, bost urteko ikuspegi estrategikoaren baitan urtez urteko helburuak, arduradunak, epeak, neurriak eta baliabideak zehaztuta.

Tolosako Udalak egin du plan hau eta UEMAren aholkularitza jaso du. Plana egiteko udal langileen eta ordezkarien parte-hartzea izan du. Udal langile eta ordezkari guztiei zuzendutako plana da; beraz, plana udalbatzak onartutakoan, denek bete beharko dituzte bertan jasotzen diren irizpideak.

Tolosako egoera soziolinguistikoak bilakaera oso positiboa izan du azken 40 urteetan. 1981ean, tolosarren erdia zen euskalduna, eta 2021eko datuei erreparatuz, biztanleriaren %70 euskaldunak dira, % 14,7, euskaldun hartzaileak eta, % 15, erdaldunak (EUSTAT). Beraz, tolosarren ia % 85ek euskaraz ulertzen du, eta horrek aukerak ematen dizkio Udalari euskararen erabilera indartzeko beste urrats batzuk emate aldera.

Bestalde, Udalak berak lan handia egin du udal barruko euskararen normalizazioan. Arduradun politikoaren eta langileen artean euskararen ezagutza ia bermatuta dago: testuinguru horretan aukera dagoela Udalean pauso gehiago emateko.

Udalak berak aurrerapenak egin dituela urteotan: langileen % 88k hizkuntza-eskakizuna dute, udal gobernuak kide guztiak eta oposiziokoak euskaldunak dira, eta oro har, euskararen jarrera aldekoa da. Gauzak horrela, beste urrats kualitatibo batzuk ematea izango dela plan berriaren helburua.

Tolosako Udalaren indargune nagusiak dira irudi euskalduna transmititzen duela, herritarren eskubideak bermatuta daudela, ordezkari politikoak eta langileak euskaldunak direla eta barne-harremanak ere euskaraz direla.

Hobetu beharrekoen artean, azpimarragarrienak dira: Euskararen kudeaketa orokorra hobetzea, arduradun politikoaren eta sailtako buruan lidergoa lantzea, euskararen erabilera sustatzeko strategiaren komunikazioan sakontzea eta hizkuntza klausulen jarraipena egitea.

Gauzak horrela, erabilera plan hau lantzen hastean, indar bereziak jarriko ditugu Hizkuntza-irizpideen eta erabilera-planaren komunikazioan, euskara eguneroko kudeaketan txertatzeko kontzientzia lantzean eta zerbitzuburuak beren roletan ahalduntzea.



KOKAPEN OROKORRA

Bisioa

Udalan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko

Derrigorrez bete beharreko indizea

19/2024 Dekretuaren, otsailaren 22koaren, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoaren, 25. artikuluan derrigorrezko eskakizunen indizea ezartzen da (euskaldunak +(ia euskaldunak/2)). Tolosako Udalari 2021eko zentsuko datuen arabera % 77,6 dagokio, eta gaur egun, % 88 ingurukoa da, onartutako hizkuntza-plangintzarekin bat etorrita.

Plan estrategikoaren helburuak

19/2024 Dekretuak erakundeen hizkuntza-normalizazioko helburuak berresten ditu eta hauexek dira:

- a) **Euskararen erabilera normala eta orokorra:** euskara, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko hizkuntza, euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala, eta, beraz, zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da, erabilera normala eta orokorra izango duena haien jardueretan, halako moldez non euskararen presentzia ere arian-arian finkatuko den euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen jarduera guztietan.
- b) **Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen hizkuntza-politika bideratuta egongo da herritarrek haiekin dituzten harremanetan hizkuntza-eskubideak erabat gauzatzera.
- c) **Berezko hizkuntzaren erabileraren aldeko ekintza argiak abiaraztea,** hizkuntza-aniztasuna sustatzea eta atzerapausorik ez ematea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta:
 - Euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek behar diren neurriak hartuko dituzte euskararen erabilera mugatzen duten edo euskararen erabileraren kalterako diren oztopoak ezabatzeko.
 - Euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek haien zerbitzura dauden langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna etengabe hobetzea sustatuko dute, beren jardunak une oro hizkuntza zuzen, zehatz, argi eta egokian egin



ditzaten, aukera emanez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna baino goragokoak egiaztatzeko prestakuntza jaso dezaten..

Printzipioak

- a) **Diskriminaziorik ezaren printzipioa:** ez da inor baztertuko erabiltzen duen edo erabili nahi duen hizkuntza ofiziala dela-eta.
- b) **Efikaziaren eta efizientiaren printzipioa:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek efikazia- eta efizientzia-printzipioen eskakizunetara egokituko dute beren hizkuntza-plangintza, eskura dituzten baliabide publikoak zentzuz erabiliz, jardueren plangintza eta ebaluazio egokian oinarrituta.
- c) **Autoantolaketa-printzipioa:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek hizkuntza-politikaren gobernuan eta administrazioan parte hartu ahal izango dute, beren organoen bitartez. Bakoitzaren eskumenen esparruan, euskal sektore publikoa osatzen duen entitate bakoitza arduratuko da hizkuntza-arloa kudeatzeaz.
- d) **Ekintza positiboaren printzipioa:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek neurriak hartuko dituzte euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, bai eta euskararen erabileraren kalterako diren bereizketak, bazterketak, murrizketak edo justifikaziorik gabeko lehenespenak ezabatzeko ere.

Euskararen erabileraren alde hartzen diren neurri bereziak –euskaldunen eta gaztelania-hiztunen artean berdintasuna sustatzeko eta euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko egikaritzen direnak– ez dira joko gaztelaniaz aritzen direnak diskriminatzeko egintzatzat.

- e) **Proporzionaltasun-printzipioa:** euskal sektore publikoko entitateek, beren hizkuntza-normalizazioko prozesua diseinatzean, bermatu beharko dute proposatzen dituzten neurriak egokiak direla lortu nahi duten helburu legitimoa lortzeko, ez dagoela helburu hori efikazia berarekin lortzeko hain kaltegarria ez den beste neurririk, eta neurriak haztatuak edo orekatuak direla, haien aplikazioaren ondorioz interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo interesetarako eragiten diren kalteak baino.



TOLOSAKO
UDALA



TOLOSAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA 2023-2027 ALDIRAKO

Planaren indarraldia

Plana, 2024an onartzen baldin bada ere, indarrean egongo da VII. Plangintzaldi osoan eta berau ordeztuko duen plan berria onartu bitartean. Horren berri emango dio Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen sailari, 19/2024 Dekretuaren, otsailaren 22koaren, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeakoaren, 18. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Ebaluazioa

Plangintzaldiaren bi unetan, gutxienez ere –plangintzaldiaren erdialdean eta amaieran–, entitateek barne-ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute, entitatearen web-atarian argitaratu beharko dena. Plangintzaldi bakoitzaren amaierako ebaluazioaren datuak hurrengo plangintzaldiko plan estrategikoa lantzeko behar den hasierako diagnostikorako oinarria izango dira.

Sailen izaera

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 17.6. artikulua ezartzen du «*plan estrategikoa, entitateak euskarazko administrazio-unitateak izendatu ahal izango ditu, beren eginkizunak nagusiki euskaraz beteko dituztenak. Euskarazko administrazio-unitateak dira lanpostuen % 80an gutxienez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne*

Tolosaren kasuan, gaur egun, sail guztiak euskarazko administrazio-unitate izendatuta daude. Euskarazko administrazio-atalak dira beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak dira.

PLANA LANTZEKO METODOLOGIA, FASEAK ETA PARTAIDEAK

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia, KEMEN, erabili du Tolosako Udalak, Euskararen erabilera normalizatzeako plan estrategikoa diseinatzeko. KEMENen bidez erakunde euskararen kudeaketa eta erabilerari dagozkion 48 adierazle ebaluatzen diren, horietako 20 kudeaketaren ardatzaren baitan, eta gainontzeko 28ak erabileraren ardatzaren baitan (ikus 1. eranskina). Horietako 14 adierazle osatzen dute Adierazleen Aginte Panela (ikus 2. eranskina), eta 19/2024ko Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeakoak, zehaztu bezala, adierazle horien inguruko informazioa eman beharko zaio hizkuntza normalizazioan eskumena duen organoari, bertan adierazten den moduan.

Plan estrategikoa garatzeko prozesuan urrats hauek eman dira:



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

a) Komunikazioa

- Lurralde, Antolakuntza eta Herritarrak Batzordeetan. Antolakuntza eta Herritarrak batzordeak batu eta bie batera jakinarazi genien plana egiten hasiko ginela, eta zein izango zen prozesua.
- Euskararen Aholku Batzordean. Euskararen Aholku Batzordea hilero biltzen da, eta urtarileko bilera baliatu genuen planaren berri emateko.
- Komitean.

b) Diagnostika

- Galdetegiak: langileentzat eta erakundearentzat
- Alderdi kualitatiboen lanketa.

c) Plan estrategikoaren lanketa

- Arloko batzordeetan
- Langileen ekarpenak
- Euskararen Aholku Batzordean

d) Kudeaketa plana lantzea

e) Plana osorik aurkeztea

f) Plana onartzea

Langileen galdetegia sail guztietako 167 langileri bidali zitzaien, 130 online eta 37 paperean (Brigada eta Udaltzainak). Guztira, 141ek bete zuten; hau da, galdetegia jasotako langileen % 85 inguruk.

ESKU97a2ecbd-f50c-4861-890f-34b8e9e77e6a



PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA

Txosten honetan jasotzen den plan estrategikoa Eusko Jaurlaritzak VII. Plangintzaldirako zehaztutako KEMEN metodologia eta KEMENen irizpideak jarraituz egin da.

Plan estrategikoaren egitura



ESKU97a2ecbd-f50c-4861-890f-34b8e9e77e6a



TOLOSAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

EGOERA OROKORRA

Egoera orokorrari buruzko taula honetan, Tolosako Udalak autodiagnostikoan jasotako puntuazio osoa dago jasota.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
60,9	609	87,4	874	26,5	265



1. KUDEAKETA

Euskara plana nola gestionatzen den jasotzen da hemen: plana bultzatzeko zein egitura duen, departamentu bakoitzak plana bere gain hartu eta bultzatzen duen, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartzen duten, enpresak kontratatzean hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.

Honako arloak hartzen ditu: Euskararen kudeaketa orokorra, Lidergoa, Langileak, Gaitasuna, Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa eta Hizkuntza klausulak.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
40,5	71,60	121,50	214,8	31,1	93,3

ERRONKA NAGUSIAK

1. Egitura egokia antolatzea udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.
2. Jarraipen sistematikoa egitea.
3. Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
4. Arduradun politikoen zein langileen lidergotza sustatzea.

1.0.1. Euskararen kudeaketa orokorra

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
45	27	75	45	30	18

Egoera

- Tolosako Udalean euskaraz lan egiten eta herritarren eskubideak bermatuta daude. Udalean Euskararen Aholku Kontseilua izeneko sistema egituratu bat dago. Bertako kide dira udal taldeko bi zinegotzi (tartean Euskara Zinegotzia), oposizioko taldeetako kide bana, Udal Euskaltegiko zuzendaria, Galtzaundiko eta UEMAko ordezkariak. 2023. urtera arte han egin da kudeaketa-planaren jarraipena, baina ez sistematikoki. Beste saileko ordezkariak ez dute Batzorde horretan parte hartzen.
- Orain arte, planak Tolosako Udaleko Euskara Azpisailaren eta UEMAren artean diseinatu, inplementatu eta ebaluatzen dira. Beraz, hizkuntzaren kudeaketa kontzeptuari buruzko lanketa kontzienteago bat egin behar da.



Egindakoak

- Aurreko plangintzaldian (2018-2022) erabilera-plana eta urteko kudeaketa-planak egin ziren, eta hizkuntza-irizpideak onartu ziren. Bikain ziurtagiriaren prozesua baliatu zen autodiagnostikoa egiteko, eta horrez gainera, Udalaren egoera ezagutzeko, 19 udal langile elkarrizketatu ziren.
- Dokumentu guztiak estandarizatzeko prozesua martxan dago eta Tolosako ELEren ordenantza onartu da.
- Urteko kudeaketa planak egin dira UEMArekin lankidetzan.
- Ordenantzetan hizkuntza-txostenak sistematikoki egiten dira.

Indarguneak

- Tolosa udalalderri euskalduna da eta udal langileak horren jakitun dira. Horrenbestez, herritarren hizkuntza-eskubideak neurri handi batean bermatuta daude.

Zer hobetuak

Tolosako Udalak erabilera-plana eta hizkuntza-irizpideak izan baditu ere, kasu batzuetan, langileak ez daki nora jo edo non kontsultatu behar duen zalantza jakinak dituen. Bestalde, Euskararen Aholku Kontseiluak plan estrategikoak eta kudeaketa planak kudeatzen baditu ere, gainerako sailtako ordezkariak xede horretarako espazioa izatea egokia litzateke, bai eta planen jarraipena egiteko ere.

Euskara Azpisailean gorabehera handiak izan dira azken urteotan. 2022ko urtarrilean bukatu zen zerbitzuburuaren lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua, eta bi zerbitzuburuk uko egin diote praktikaldia bukatu baino lehen. Gaur egungo zerbitzuburuak 2023ko maiatzean izendatu zen praktiketako funtzionario. 2019-2023 agintaldian bost zerbitzuburu izan dira Euskara Azpisailean.

Normalizatzailearen lanpostuari dagokionez, 2022ko abendutik 2023ko azarora hutsik egon zen. 2023ko azaroan behin-behineko izendatua izan zen normalizatzaileak betetzen du lanpostua. Aurreko normalizatzailea itzulpenak egiten ibiltzen zen batez ere. 2024an lanpostua funtzionarizatu egin zen.

Itzultzaile lanpostuak ez du titularrik, eta plaza betetzen itzultzaile bat ari da behin-behineko egoeran. Kontu hau argitu beharko litzateke, lanpostu hau estrategikoa baita azpisailearentzat.

Sailak bi hutsune handi ditu, administratiborik ez hezkuntza teknikatiborik ez izatea, hain zuzen. Dirulaguntza gehien bideratzen dituen sail bat izanik, zerbitzuburuak bere lanak alde batera utzi behar ditu administratiborik lanak egin ahal izateko eta horrek sailaren martxa izugarri moteltzen du.



Helburu estrategikoak

1. Euskararen Aholku Kontseiluan beste sailtako arduradun tekniko eta politikoekin planaren jarraipena egiteko maiztasuna zehaztea, edo hori egin ezin bada, arloko batzordeetan horretarako maiztasuna zehaztea.
2. Euskararen kudeaketa orokorra udalaren kudeaketaren baitan integratu eta sistematizatzea.
3. Erabilera-plana ondo komunikatzea langileei nahiz arduradun politikoei.
4. Hizkuntza irizpideak onartzea.
5. Erabilera planean zehaztutako helburuen eta hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipen sistematikoa egitea.

Adierazleak eta helburuak

1.0.1.1. Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
45	75
<ul style="list-style-type: none"> • Plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu behar da, sail guztien parte-hartzearekin. Jada sortuta dauden Herritarrak, Antolakuntza eta Lurraldeko mahaiak xede horretarako baliatzea aukera bat da, jada sortuta dauden mekanismoak baliatu ahal izateko; edo bestea, Euskararen Aholku Kontseiluan sail bakoitzeko ordezkariarekin gutxienerako maiztasunaz biltzea. 	
1.0.1.2. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
45	75
<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera planaren jarraipena egiteko egitura finko bat sortzea, gutxienerako maiztasunaz bilduko dena, eta jarraipena sistematikoki egitea. Horri esker, Udalak beharrezko egokitzapenak egiteko gaitasuna izango du. • Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea. Bertan jasoko dira planaren helburuak eta lehentasunak, datuak nola bildu, datuak biltzeko arduradunak, maiztasuna eta epeak. • Urteko kudeaketa-plana egin eta jarraipen sistematikoa egitea. • Beste zeharkako gaiekin (Berdintasuna...) lankidetzarako bideak martxan jartzea. 	
1.0.1.3. Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)



80	100
<ul style="list-style-type: none"> • Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea dagozkion plan guztietan eta jarraipena egiteko egitura sortzea (Merkataritza, Hirigintza, Turismoa...). • ELEren ordenantzari buruzko informazioa zuzenean ematea arlo horietako langileei. • ELEaren tramitea dagozkion espediente guztietan txertatzea, sistematikoki Euskara Azpisailetik pasatu daitezten. 	

1.0.2. Lidergoa

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
22,8	17,1	57	42,75	34,2	26,65

Egoera

Tolosako Udaleko Euskara Azpisaileko eta UEMAko teknikariak biltzen dira euskararen kudeaketarekin lotura izan dezaketen lanak egiteko. Ordezkarri politikoak gai erabakiorrenetan esku hartzen du.

Egindakoak

Ez da aparteko lanketarik egin arduradun politikoekin eta arlo buruekin euskararen erabileran lidergoa lantzeko.

Indarguneak

Ordezkarri politiko guztiak euskaldunak dira eta euskararen aldeko jarrera dute.

Sail guztietako arlo buruek dute euskaraz lan egiteko gaitasuna.

Zer hobetuak

- Arduradun politikoak hizkuntza gaietan trebatzea, gizartearen aurrean duten erantzukizunaz jabearaztea eta eredu bihurtzea.
- Langileek eta sailletako buruek euskara zeharlerrotzat hartzea eta erabilera-planaren kudeaketa eguneroko lanean txertatzea.

Helburu estrategikoak

1. Udal ordezkarri eta arduradunek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.
2. Udal ordezkarri eta arduradunek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea, eta beren saileko langileei betetzearen garrantzia transmititzea.
3. Udal ordezkarri eta arduradunak herritarrentzat eta langileentzat eredugarri izatea.



4. Motibazioa sustatzea eta langileak zein ordezkariak planaren eta helburuen parte izatea.

Adierazleak eta helburuak

1.0.2.4. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
40	70
<ul style="list-style-type: none"> Euskararen Aholku Kontseiluan beste sailtako arduradun politikoek eta ordezkariak gutxieneko maiztasun batez parte hartzea eta inplikatzeko lortzea. Horretarako, liderrek zer funtzio eta egiteko dituzten zehaztu eta komunikatu behar da, arduradun politikoengandik hasi eta saileko arduradunengana. Hala, argi izango dute zer egin behar duten beren egunerokoan euskararen erabilerrari dagokionez, zerbitzu guztiak kontuan harturik. Udalbatza osoari eta langile guztiei erabilera-plana aurkeztea. 	
1.0.2.5. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
25	50
<ul style="list-style-type: none"> Arduradun politiko eta teknikoentzako ahalduntze-saioak prestatu eta egitea. Motibazioa sustatzea eta langileak zein ordezkariak planaren eta helburuen parte sentitzea. 	
1.0.2.6. Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
0	50
<ul style="list-style-type: none"> Sail bakoitzean arduradunak izendatu behar dira adierazleen datuak biltzeko, eta datuak biltzeko maiztasuna adostu sail bakoitzarekin. Horretarako, datuak biltzeko panel bat egoki bat sortu behar da, erabilera-planeko helburuen arabera. 	

1.0.3. Langileak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
72	43,2	87,5	52,5	15,5	9,30

Egoera

Orain arte ez da Erabilera Planaren inguruko lanketa sakonik egin, eta horregatik, langileek urrun sentitzen dute. Dena dela, jakin badakite euskaraz edo ele bitan egin behar dituztela



dokumentu guztiak eta hori betetzeko ahalegina egiten dute, nahiz eta batzuetan nahasketak sortzen diren.

Egindakoak

Aldian aldiko kontsultak egiteko Euskara Azpisailera jotzen dute langileek.

Indarguneak

Langileek gehiago handiak du euskaraz egiteko gaitasuna.

Zer hobetuak

Bete beharreko irizpideen ezagutza sakonagoa izatea langileek.

Helburu estrategikoak

1. Langileek hizkuntza irizpideak behar bezala ezagutzea eta betetzea.

Adierazleak eta helburuak

1.0.3.7. Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardanean zeintzuk bete behar dituzten.

Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
52,5	75
<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera plana osatu, eta horretarako langileen iritzia eta beharrak kontuan izatea. Langileei erabilera plana eta hizkuntza-irizpideak komunikatzeko berriazko saioak egitea, bakoitzaren egitekoak azalduaz. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta laguntzea, euren ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea... Saitetako bilerak, aldi-aldi pilulak bidaltzea, ... baliu daitezke. • Langileen harrera-protokoloan hizkuntza-irizpideen azalpena txertatzea eta azalpen hori ematen dela bermatzea. 	

1.0.3.8. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.

Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
89,5	100
<ul style="list-style-type: none"> • Langileek beraien eginbeharrak garbi izan ditzaten bermatzea. • Langileek hizkuntza irizpideak ezagutu eta betetzea. 	

1.0.4. Hizkuntza gaitasuna

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
94,1	0.00	100.00	0.00	5,90	0.00

Egoera



Udal ordezkari eta langile gehien-gehienek euskaraz lan egin eta euren funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna dute.

Egindakoak

Tolosako Udalean hizkuntza eskakizunak eskatu eta betetze maila bermatu da. Horrez gain, ordezkari politikoen artean, gaur egun, ordezkari politiko guztiak euskaldunak dira.

Indarguneak

Udal ordezkari eta langileek euskaraz lan egiteko gaitasuna dute, bai ahoz, bai idatziz. Erabilera Plana onartzen den unean, Tolosako udalari 2021eko zentsuko datuen arabera % 77,6 dagokio. 2024ko lanpostu-zerrendaren arabera, lanpostuen %88k dute derrigortasuna, udalak indarrean izan duen hizkuntza-plangintzarekin bat etorritik. Lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunak (HE) eta derrigortasun-datak III. eranskinean jasota daude.

Zer hobetuak

Langile eta arduradun politikoek lana euskaraz egiteko dauden erreminta eta aplikazioak ezagutzea komenigarria litzateke.

Helburu estrategikoak

1. Langileek sortutako testuen hizkuntza-egokitasuna hobetzea, Euskara Azpisailak antolatutako berariazko saioen bidez.
2. Hautaprobetan, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskaraz egitea.
3. Ordezkari politikoak euskaldunak izaten jarraitzea.
4. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak betetzen jarraitzea.

Adierazleak eta helburuak

1.0.4.12. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
92,3	100
<ul style="list-style-type: none"> • Lanpostuaren funtzioak ahoz betetzeko langileen beharrak identifikatu eta behar horien araberako prestakuntza eskaini. • Langileak euskara maila hobetzera animatzea, bereziki, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna adinako euskara maila ez dutenak edo hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan arren, eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak, eta horretarako baliabideak eskaini. • Hautaketa-probetan, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskaraz egitea. Honen gaineko adierazlea jasotzea. 	
1.0.4.13. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)



90,1	100
<ul style="list-style-type: none"> • 1.0.4.12 adierazleko neurriak. • Lanpostuaren funtzioak idatziz betetzeko langileen beharrak identifikatu eta prestakuntza eskaintzea. 	
1.0.4.14. Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
100	100
<ul style="list-style-type: none"> • Arduradun politikoak trebakuntzara gonbidatzea 	

1.0.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
42,5	19,13	82,5	37,13	40	18

Egoera

Udalak euskara sustatzeko jarrera adierazten du, baina zeharka. Ez du sakondu erabilera-planaren komunikazioan, eta saileko ordezkari politikoak eta langileek hartzen dute parte arloarekin lotutako foro eta bileretan.

Egindakoak

Saileko ordezkariak, saileko arduradun teknikoak eta normalizazio-teknikariak UEMAko bileretan, Udalekin eta beste hainbat forotan parte hartzen dute, beste erakundeetako esperientzia eta praktika onak ezagutzeko eta gureak partekatzeko.

Euskararen Ordenantza ere badu Tolosako Udalak

ESEP 2021eko irailean onartu zen Euskararen Aholku Kontseiluan. Gaur egun, AROA. Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa egiten ari da Udala. Herritarren parte-hartzea bermatzeko, eztabaida-taldeak antolatu dira zenbait profiletako eragin-taldeekin.

Indarguneak

Langileen eta ordezkarien arteko harremana jarraitua da eta komunikatzeko aukerak daude.

Zer hobetuak

Hizkuntza irizpideak, plan estrategikoa eta kudeaketa planak egin eta onartu behar dira eta interes-taldee (herritarrak eta langileak) komunikazioa nola egin zehaztu behar da.

Helburu estrategikoak



1. Planaren, betebeharren eta lorpenen inguruko barne-komunikazioa pentsatu eta abian jartzea.
2. Herritarrek planaren berri izateko komunikazio-estrategia lantzea.
3. Komunikazio horretan langileek ere parte hartzea.

Adierazleak eta helburuak

1.0.5.15. Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldee.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
25	75
<ul style="list-style-type: none"> • Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia aktiboki komunikatzea: • Planaren komunikazio orokorra, herritarrei zein entitateei. • Zuzeneko komunikazioa, udalarekin ohiko harremana duten entitateei: enpresa, elkarte eta abarrei... 	
1.0.5.16. Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
83,4	100
<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen normalizazio-prozesuaren baitan, beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta norberarenak ezagutzera emateko ekimenetan parte hartzen jarraitzea eta arduradun politikoak eta aproposak izan daitezkeen langileak parte hartzera animatzea. Ahal dela, parte hartze hori areagotzea. 	

1.6. Hizkuntza-klausulak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25	15	62,4	37,5	37,5	22,5

Egoera

Hizkuntza klausulak kontratazio eta dirulaguntza guztietan eta hitzarmen gehienetan sistematikoki txertatzen dira, baina ez zaie jarraipenik egiten.

Egindakoak

Hizkuntza klausula estandarrek egin dira kontratazio mota guztietarako.

Indarguneak

Kontratazioetan eta dirulaguntzetan hizkuntza-klausulak txertatzea erabaki zen.

Zer hobetuak



Hizkuntza klausulen jarraipen-sistema sortu behar da kontratazioan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan sistematikoki. 179/2019 Dekretuaren 36. artikulua kontratazio publikoan aplikatu beharreko irizpideak eta tokiko erakundeek baliatu beharrekoak zehazten ditu eta kontuan hartu behar dira. Horrez gainera, 19/2024 Dekretura, otsailaren 22kora, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekora, egokitu behar dira plegu administratiboak, eta plegu teknikoek ere kontratazio bakoitzera ere hobeto egokitzeko premia dute.

Helburu estrategikoak

1. Kontratuetoako hizkuntza klausulak eguneratu, egokitu eta txertatzea.
2. Kontratuetoako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egitea
3. Dirulaguntzetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea.
4. Udal baimenetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea.

Adierazleak eta helburuak

1.0.6.17. Kontratuetoan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
100	100
<ul style="list-style-type: none"> • Udalak egiten dituen kontratuetoan kontratu bakoitzari egokitutako klausulak txertatzea, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jasotzea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak. 	
1.0.6.18. Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
100	100
<ul style="list-style-type: none"> • Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen direla bermatzea, batez ere xedean hizkuntza-erabilera dutenak. 	
1.0.6.19. Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetoako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
0	50
<ul style="list-style-type: none"> • Kontratuetoako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatzea eta inplementatzea sailtako arduradunekin. 	
1.0.6.20. Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
0	50
<ul style="list-style-type: none"> • Dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatzea eta inplementatzea sailtako arduradunekin elkarlanean. • Jarraipena egiteko prozedura hori egiteko laguntza eskaintzea langileei 	



2. ERABILERA

Udalak zein hizkuntzatan funtzionatzen duen jasotzen da hemen. Bai ahoz eta bai idatziz, udal barruan zein kanpokoekin duen harremanetan. Eta baita, idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren.

Honako arloak hartzen ditu:

o Zerbitzu Hizkuntzaren barruan: Irudia eta Herritarrekiko harremanak.

o Lan Hizkuntzaren barruan: Barne harremanak, Kanpo harremanak, Prestakuntza, Baliabide Informatikoak eta Sortze-hizkuntza.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
76,20	533,40	94,20	659,40	18	126

ERRONKA NAGUSIAK

1. Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
2. Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza.
3. Udalak enpresei, herritarrei, erakundeei... ele bietan bideratzen dizkien komunikazioak ahal den neurrian euskaraz bideratzea.
4. Udalak beste erakunde batzuetatik, enpresetatik, herritarretatik jasotzen dituen idatzietan ere euskarazko harremana bultzatzea.

2.1. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
92,30	193,83	100	210	7,70	16,17

2.1.1. Irudia

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
91	38,22	100.00	42.00	9	3,78

Egoera

- Euskaraz edo ele bitan daude udaleko errotuluak, bai finkoak baita behin-behinekoak ere.



- Sare sozialak eta webgunea ele bitan kudeatzen dira modu orekatuan.
- Zenbait agerraldi instituzional ele bitan egiten badira ere, beste batzuetan, hala nola bilera irekietan, dudak sortzen dira jokabide linguistikoari dagokionez.

Egindakoak

Euskarri guztietan euskararen presentzia bermatzeko eta lehentasuna emateko saiakera egin da.

Indarguneak

Euskaraz edo ele bitan daude udaleko errotuluak, bai finkoak baita behin-behinekoak ere.

Zer hobetuak

Material asko ez da Euskara Azpisailetik pasatzen, eta beste batzuk azken orduan pasatzen dira eta hizkuntza-kalitateari dagokionez, zer hobetua badute. Ibilbide hori are hobeto zehaztu beharko litzateke, hizkuntza-errebisioa behar duten dokumentu guztiak Euskara Azpisailera eramatea.

Helburu estrategikoak

1. Hizkuntza irizpideak betetzea irudiari lotutako adierazleetan.
2. Hizkuntza kalitatea zaintzea.
3. Arduradun politikoei agerraldietako hizkuntza irizpideak betetzea eta euskaraz aritzea.

Adierazleak eta helburuak

2.1.1.21. Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.			
Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bitan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bitan (%)
28	72	75	25
<ul style="list-style-type: none"> • Errotuluak euskaraz izatea, euskara hutsez ahal denean, (Testuko hitzak euskaraz eta gaztelaniaz antzekoak direnean, euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean eta mezuarekin batera, esanahia argitzen duen piktograma bat dagoenean). Ezin denean, ele bitan jarriko dira. 			
2.1.1.22. Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.			
Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bitan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bitan (%)
0	100	0	100
<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza irizpideak bete eta argitalpen, iragarki eta publizitateak ele bitan izatea, euskara lehenetsiz. 			
2.1.1.23. Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.			



Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
70		100	
<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza irizpideak ongi komunikatu eta agerraldi instituzionaletan hizkuntza egoki kudeatzeko protokolo bat sortzea. Horretarako, agerraldi instituzional desberdinak sailkatu eta bakoitzera egokitutako protokoloa egitea. 			
2.1.1.24. Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.			
Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bitan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bitan (%)
0	100	0	100
<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza irizpideak bete eta webgunea eta sare sozialak ele bitan izatea, baina euskara izatea lehenetsitako hizkuntza. 			

2.1.2. Herritarrekiko harremanak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
92,70	155,74	100	168	7,3	12,26

Egoera

- Euskaraz egiten zaio lehen hitza herritarrari eta elkarrizketa asko euskaraz izaten dira.
- Espedienteetan jasotako laginaren arabera, herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei euskaraz edo ele bitan erantzuten zaie, eta gaztelaniaz aurkeztutakoei, ele bitan.
- Herritarrentzako ikastaroetako irakasle eta begirale gehienak euskaldunak dira. Hala ere, ikastaroetarako hizkuntza-irizpideak zuzenean irakasle eta begiraleekin lantzea egokia litzateke.

Egindakoak

Langileei jakinarazi zaie herritarrek eskatutako hizkuntzan erantzun behar zaiela.

Indarguneak

- Herritarrek bermatuta dute bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzea zerbitzuak.
- Langileak betebeharraren oso jakitun dira.

Zer hobetuak

- Langileek aurrea hartu behar dute herritarrarekin kontaktua egitean, lehenak izan behar dira lehen hitza esaten, hala, euskaraz egiteko aukerak biderkatu egiten baitira.



- Ez dago zehaztuta ikastaroek zer hizkuntzatan izan behar duten, eta orain arte, begiraleei ez zaie hizkuntza-irizpideen berririk eman.
- Zaila da espedienteetan herritarrek zer hizkuntzatan artatzea nahi duen begiratzea, espedienteak ez baitu aukera hori jasotzen.

Helburu estrategikoak

1. Ezarritako hizkuntza irizpideak betetzen jarraitzea eta dudak argitzea.
2. Langileak eta udal ordezkariak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten sustatzeko, idatziz nahiz ahoz.
3. Idatziz euskaraz egiten duten herritarrei sistematikoki euskara hutsean erantzutea.
4. IZFERekin hizkuntzaren aukera zein den jakiteko bidea argitzea.

Adierazleak eta helburuak

2.1.2.25.Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.			
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
83,9		100	
<ul style="list-style-type: none"> • Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egiteko egokiera senti dezaten. • Herritarrekin ahoz harreman gehien duten langileak identifikatzea (udaltzainak, UDATE, gizarte zerbitzuak...), euskararen erabileraren inguruko azterketa egitea eta egoera hobetzeko haien premietara egokitutako baliabideak eskaintzea. 			
2.1.2.26.Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.			
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
94,5		100	
<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren eskubide linguistikoak bermatzearen garrantzia azpimarratzea. 			
2.1.2.27.Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.			
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
86,3		100	
<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrentzako ikastaroetarako hizkuntza-irizpideak zuzenean begiraleekin lantzea. • Izena ematean, herritarrei beren euskararen ezagutzari buruz galdetzea, eta ikastaroen hartzaileen arabera ezartzea zer hizkuntzatan egingo den ikastaroa. • Euskarazko ekitaldi kulturalen kopurua handitzea. • Ikastaroen eta ekitaldien hizkuntza-erabileraren jarraipena egiteko sistema bat sortu eta abian jartzea. 			
2.1.2.28.Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.			
Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bietan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bietan (%)
29,0	71,0	100	100



- Langileek ezarritako irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei ele bitan.
- Udala proaktiboa izatea herritarrei bideratzen dien idatzietan. Gaur eguneko komunikazioak aztertu eta herritarrek Udalarekin tramiteak euskaraz egitera animatzea kanpainen bidez, betiere herritarrek hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea bermatuz.
- Herritarrei bidalitako jakinarazpenen hizkuntza datuak jasotzeko bidea erraztea.

2.1.2.29. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz

Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bietan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bietan (%)
50	50	100	0

- Udala proaktiboa izatea herritarrei bideratzen dien idatzietan. Gaur eguneko komunikazioak aztertu eta herritarrek Udalarekin tramiteak euskaraz egitera animatzea kanpainen bidez, betiere herritarrek hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea bermatuz.

2.1.2.30. Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz

Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
69,4	75

- Herritarren eskaera euren ezagutzaren parekoa izatea; eta horretarako, herritarrak Udalarekin ahoz euskaraz egitera animatzea.

2.1.2.31. Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.

Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bietan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bietan (%)
30.00	70.00	50.00	50.00

- Herritarren eskaera euren ezagutzaren parekoa izatea; eta horretarako, herritarrak Udalarekin idatziz euskaraz egitera animatzea.

2.2. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
73,80	361,62	91,70	449,33	17,90	87,71

2.2.1. Barne-harremanak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
68,50	100,69	100	147	31,50	46,30



Egoera

- Barne batzarrak, formalak euskaraz egitea zehaztuta dago, baina galdetegietako datuei erreparatuta, badirudi langileen pertzepzioa euskaraz erdiak baino gutxiago egiten direla dela.
- Barruko txostenak euskaraz sortzen dira.

Egindakoak

Barne batzarrak euskaraz egitea eta euskaraz lan egitea zehaztuta dago.

Indarguneak

- Barne batzarrak, informalak zein formalak euskaraz egiten dira.
- Barruko txostenak euskaraz sortzen dira.

Zer hobetuak

- Barne-lanerako dokumentuetan euskarazko ereduak hautatu eta sortzea.

Helburu estrategikoak

1. Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.
2. Lankideen arteko euskarazko ahozko erabilera sustatzea, informala batez ere.
3. Prozedura administratibo guztiak euskaraz egitea.

Adierazleak eta helburuak

2.2.1.32.Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
45,7	100
<ul style="list-style-type: none"> • Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak betetzea eta bileretako hizkuntza euskara beti izatea. 	
2.2.1.33.Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
83,3	100
<ul style="list-style-type: none"> • Langileak euskaraz lan egitearen garrantziaz ohartzea eta ezarritako irizpideak betetzea. • Langileen arteko ahozko lan-harremanetan euskaraz egitea sustatzeko dinamikak lantzea. 	
2.2.1.34.Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
81,8	100



- Langileen arteko ahozko lan-harremanetan euskaraz egitea sustatzeko dinamikak lantzea, Eusle metodologiaren ildotik, adibidez.

2.2.1.35. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.

Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bietan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bietan (%)
94		100	

- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egitea, eta betetze mailaren jarraipena egitea.

2.2.1.38. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.

Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bietan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bietan (%)
94.0	6.9	100	0

- Langileek ezarritako irizpideak betetzea eta euskaraz izatea lanari lotutako hizkuntza-paisaia. Betetze mailaren jarraipena egitea.

2.2.2. Kanpo-harremanak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
92,2	90,36	100	92,2	90,36	100

Egoera

- Sektore publikoko beste erakundeetako ordezkariekin euskaraz bideratu ohi da harremana.
- Enpresa pribatuekin egoera askotarikoa da. Udalak kontratazio batzuk Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden enpresekin ditu, eta haiekin, ezinbestean gaztelaniaz egin behar izaten du.

Egindakoak

Indarguneak

Udal langileek euskaraz egiten dute lehen hitza, oro har. Idatziak ere euskaraz egiten dituzte.

Zer hobetuak

Irizpidea ondo komunikatu behar da eta langileak irizpide hori betetzeko ahaldundu.

Helburu estrategikoak



1. Ezarritako hizkuntza irizpideak betetzea.
2. Erakundeen artean euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea
3. Erakunde pribatuekin euskara hutsezko harremana sustatzea, horretarako aukera ematen duen kasuetan, eta jarraipena egitea.

Adierazleak eta helburuak

2.2.2.39. Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.			
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
87,0		100	
<ul style="list-style-type: none"> • Langileak irizpide hori betetzeko ahalduntzea. 			
2.2.2.40. Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.			
Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bietan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bietan (%)
50	50	70	30
<ul style="list-style-type: none"> • Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta EAEko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatzea. Betetze mailaren jarraipena egitea. 			
2.2.2.41. Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.			
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
73,8		80	
<ul style="list-style-type: none"> • Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta erakunde pribatuekin euskaraz gehiago egiteko bideak abiatzea. Betetze mailaren jarraipena egitea 			
2.2.2.42. Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.			
Hasieran euskaraz (%)	Hasieran ele bietan (%)	Aurreikuspena euskaraz (%)	Aurreikuspena ele bietan (%)
25	75	40	60
<ul style="list-style-type: none"> • Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta erakunde pribatuetarako agirien kasuan euskara erabiltzea beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...). Erakunde pribatuak gaztelaniaz jasotzeko eskaera egiten badu, ele bietan helaraztea. Betetze mailaren jarraipena egitea. 			

2.2.3. Prestakuntza

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
48,9	35,94	64,8	47,63	15,9	11,69



Egoera

Udalak oso prestakuntza gutxi antolatzen ditu, neurri handi batean kanpoko eskaintzaren arabera eta beharrianen arabera eskaintzen dira ikastaroak, baina oro har, ez da kontuan hartzen hizkuntza.

Egindakoak

Arlo honetan euskararen erabilera areagotzeko ez da orain arte inongo lanketarik egin.

Indarguneak

Zer hobetuak

- Momentuz Udalak ez du hizkuntza-trebakuntzarik antolatu eta eskaini, hau da, langileen beharrei erantzuteko hizkuntza formakuntzarik ez du antolatu.
- Udalak ez du eragile lanik egin beste erakundeek eskaintzen duten formazioa euskaraz izan dadin, eta, beraz, euskara lehen lerroan jar dezaten.

Helburu estrategikoak

1. Langile guztiei egokitutako hizkuntza-trebakuntza eskaintzea.
2. IVAPi eskaera formala egitea, beste udal batzuekin batera, formazio teknikoak euskaraz izan daitezen.
3. Langileak hizkuntza eta generoa uztartzen dituen gaitetan trebatzea.

Adierazleak eta helburuak

2.2.3.43. Erakundeak euskaraz eskaintzen dituen prestakuntza orokorra langileei.	
Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)
40,0	60,0
